

TTAKUN

Euskara oinarri, hamaika ekintza

2018a urte berezia izan da Ttakunentzat. Batez ere, modu batean edo bestean zuzenki eragin duten hiru gertaerei esker izan da berezia. Hauetariko batzuk gainera, gelditzeko asmoz heldu dira elkartera bere egunerokotasuna moldatzera iritsi arte. Hiru gertaera hauek Txintxarriren 25. urteurrena, Euskaraldia eta Udako Txokoak izan dira.

Bestalde, Ttakunek bere ohiko jarduna egiten jarraitu du 2018an. Ttakun osatzen duen aniztasunaren barnean, haur eta gazteen aisialdia, eskola kirola, herritarren arteko harremanak eta jairen bat edo beste ere euskaraz egiteko aukera badagoela baieztatu du Lasarte-Orian, beste urte batez. Izan ere, beste herriko hainbat erakunderekin elkarlanean hamaika ekintza egin ditu urtean zehar, desberdinak denak, baina guztiak oinarri berdinarekin: euskara ardatz izanik herritar guztientzat sortutakoak izatea. Beraz, beste urte batez ere, Ttakunek eskerrak eman nahi dizkio era batean edo bestean ekintza hauek aurrera ateratzen lagundu duten bazkide, boluntario, erakunde, eragile, erabiltzaile eta herritar guztiei.



Txintxarriren 25. urteurrena.

“Aldizkari bat betetzeko nahikoa informaziorik ba al dago Lasarte-Orian?”. Galdera horri erantzun behar izan zioten orain dela 25 urte TXINTXARRI sortzeko lanetan zeudenek. 1993.urteko urriaren 1ean argitaratu zuten lehen zenbakia, gogo eta ilusio bereziarekin. Ez da gutxiagorako: herri bat euskalduntzeko tresna paregabea da aldizkari bat. Denborak arrazoia eman die hasiera hartako ekintzaileei: 25 urtean, 1.435 zenbaki argitaratu dira. 8.000 aletako tirada du egun, eta Lasarte-Oriako etxebizitza guztietan sarrarazten du euskara.

Euskarazko hedabideek berebiziko garrantzia dute hizkuntza normalizatzeko ahaleginean; errealitatea islatzen eta eraikitzen dute. Hizkuntza jartzen dute erdigunean, eta, egunerokoa kontatzen dute ahalik eta modu sinpleenean. Hala ere, asko aldatu da Lasarte-Oria 25 urtean, baita kazetaritza egiteko modua ere. Ordenagailu bat lehen aldiz piztetik sakelako telefonoetara pasatu da denbora gutxian eta honek gertaerak kontatzeko moduak ere aldatu ditu. Alor horretan indar berezia egiten ari da aldizkaria, paperekoari eustearekin batera teknologia berrietara moldatzeko.





Euskaraldia

2018an ere ariketa sozial izugarri baten urtea izan da. Euskaraldia gure

artean gelditzeko etorri den hizkuntza ohituren gaineko ariketa izan da, 11 egunez euskararen inguruko hausnarketa ugari egiteko aukera eman duena. Lasarte-Orian jada ezagunak diren *ahobizi* eta *belarriprest* lurralde osora zabaldu duen ariketa izan da, eta 3.000 herritarrek parte hartu dute bertan. Balkoietan ere ikusi izan ditugu puntuak, eta ehunka boluntario izan dira ariketa hau aurrera ateratzeko laguntza eskaini dutenak.


Hizkuntza ohiturak erdigunean jarri ditu Euskaraldiak, 2016an egindako 9. Euskararen Maratoia eredutzat hartuta. Orduko ariketa hartan bezala, Ttakun eta Udalaren arteko elkarlana garrantzitsua izan da emaitza positiboa lortzeko eta Euskaraldia lasarteoriarar guztiengana heltzeko, baina baita bertan parte hartu duten norbanako, elkarte, ikastetxe, erakunde, denda eta eragileena.

Udako Txokoak

1992az geroztik Udalarekin batera antolatzen ziren udako txokoen kasuan berriz, lehen aldia izan da 2018an elkarlan hori eten dela. Honek erronka handi bat suposatu du elkartearentzat, urtetan izandako dinamika moldatu eta egoera berrietara egokitu beharra izan delako. Hala ere, pozgarria izan da herritarren erantzuna, guztira 250 haur inguruk parte hartu baitute Ttakunen udako txokoe-tan, aurreikuspenak gaindituz...

Mende laurdenez Udako Txokoak antolatu ostean, horiek egingo direla bermatzeko betebeharra izan du herriko elkarteak. Herriko eragile, elkarte, ekoizle, hezitzaile, familia eta haurrak barne hartzen dituen proiektua izanik, betiko filosofiarekin jarraitu du Ttakunek: herri-gintza lehenestea, etekin ekonomikoaren aurretik.

Mende laurdenez mimos tratatu dira txokoak, kultur elkartearen zutabeetako bat baitira, eta 2018an ere herriko eragileekin elkarlanean diseinatutako programazio anitza eskaini da.



25 años de TXINTXARRI se corresponden con 1.435 ediciones del periódico semanal, con 8.000 ejemplares repartidos por edición. Gran trabajo, no solo del equipo de redacción, hay más colaboradores, y entre todos se logran los objetivos. Información puntual, veraz, buscada la mayoría de las veces, recibidas otras, siempre con un objetivo: la difusión del euskera y en euskera. ¡FELICIDADES!